


2009 Rallysprint-eko Gipuzkoako Txapelketaren araudia



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

2009 RALLYSPRINT-EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA

1. Artikulua- ANTOLAKETA

1.1. Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioak 2009. urterako 2009 Rallysprint-eko Gipuzkoako Txapelketari dagozkion ondorengo Txapelketak eta Sariak ezartzen ditu:

- RALLYSPRINT-EKO PILOTUEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA
- RALLYSPRINT-EKO KOPILOTUEN GIPUZKOAKO SARIA
- RALLYSPRINT-EKO GIDARIEN JUNIOR MAILAKO GIPUZKOAKO SARIA
- RALLYSPRINT-EKO KOPILOTUEN JUNIOR MAILAKO GIPUZKOAKO SARIA
- RALLYETAKO EMAKUMEZKO GIDARIEN GIPUZKOAKO SARIA
- RALLYETAKO EMAKUMEZKO KOPILOTUEN GIPUZKOAKO SARIA

1.2. Araudi aplikagarriak, lehenetasun hurrenkeraren arabera, ondorengoak izango dira:

- a)** C.D.I. (aplikatzea badagokio).
- b)** Bere kasuan, Espainiako Txapelketako probekiko nahiz hauei dagozkien Araudi Orokorrekiko komunak diren antolaketa-baldintzak.
- c)** Bere kasuan, Espainia 2009ko Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge-ri dagokionean Komunak diren Aginduak.
- d)** Bere kasuan, 2009 Rally-etako Espainiako Txapelketari dagokion Araudi Orokorra
- e)** 2009 Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge Euskaldunei dagozkien Aginduak Komunak
- f)** 2009 Rally-etako Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Orokorra.
- g)** 2009 Rally-etako Agindu Orokorrak (aplikatzea badagokio)
- h)** Probari dagokion Araudi Berezia.

2. Artikulua- AURKEZTEN DIRENAK

2.1. 1. artikuluan zehaztutako Mendiko Gidarien Gipuzkoako Txapelketa eta Sariak F.V.A.-k emandako eta R.F.E.A.-k Homologatutako gipuzkoar lizentziak dituzten kirolzaleentzat eskuragarri egongo dira, zehazten denari jarraiki:

- Rallysprint-eko Gidarien Gipuzkoako Txapelketa: proban lehenengo gidari bezala bere inskripzioa formalizatzen duten gidariak.
- Rallysprint-eko Kopilotuen Gipuzkoako Saria: proban 2. gidari ala kopilotu bezala bere inskripzioa formalizatzen duten gidari ala kopilotuak.
- Rallysprint-eko Gidarien Junior mailako Gipuzkoako Txapelketa: **1984**ko Urtarrilaren 1a eta **1991**ko Abenduaren 31 artean jaiotako gidariak, zein Txapelketa ala Lehen mailako Euskal Kopa, Sari ala Challenge-ren nahiz maila handiagoren bateko lehenengo 3ren artean sailkatuak izan ez baitira.
- Rallysprint-eko Kopilotuen Junior mailako Gipuzkoako Saria: **1984**ko urtarrilaren 1a eta **1993**ko Abenduaren 31 artean jaiotako kopilotuak, zein Txapelketa ala Lehen mailako Euskal Kopa, Sari ala Challenge-ren nahiz maila handiagoren bateko lehenengo 3ren artean sailkatuak izan ez baitira.

Era berean parte hartzeko onartuak izango dira, baina ez dute punturik lortuko eta ez dute puntuaketik blokeatuko, R.F.E.A.-k ala Europar Batasuneko kide diren herri nahiz bereganatutako herrialdeetako edozeinek egindako nahiz homologatutako baimena duten, zein aurtengo urterako baliotasuna izango baitu, kirolzale guztiak.

3.Artikulua- ONARTUTAKO IBILGAILUAK

3.1. Ibilgailu guztiek errepide publikotan zirkulatzeko indarrean dauden araudiak bete beharko dituzte.

- **Gidabaimena.**
- **I.A.T.**
- **Ibilgailuaren Nahitaezko Asegurua.**
- **Gidariaren Gidabaimena.**

3.2. Ibilgailu guztiak segurtasun neurriei dagokionean gaur egungo araudiarekin bat etorriko dira.

3.3. 2009 Rallysprint-eko Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarriak diren Proba guztietan parte hartu nahiz puntuak lortu ahal izango dituzte ondorengo ibilgailuek:

N Taldea, A Taldea, R Taldea (FVA), eta F.I.A homologazioa duten ibilgailuak.

3.4. Puntuaketari dagokionean, puntuatuko duten onartutako ibilgailuak ondorengo zilindrada motetan banatuko dira:

2009ko GIPUZKOAKO TXAPELKETETAKO MAILAK			
Maila	Gr.N	Gr.A-Gr.R-R1-R2-R3	A2 - CM - Klasikoak
1	1.600era arte	1.400era arte	
2	1.600dik 2.000era	1.600era arte - R1A	
3	2.000etik gora	1.600dik 2.500era - R1B - R2B	
4	2.000etik gora(4x4)	2.500etik gora - Kit Car 1.600 - S1.600 - R2C - R3C - R3D - R3T	A2 (Kopak 2.000arte)
5	S2.000	Kit Car 2.000, Gr B, WRC eta GT	A2 ST - A2 (Kopak 2.000etik gora)

Junior: 1600 cm³-rainoko **1.** eta **2.** Mailak

GR N homologazioa duten edo duela 8 urtetik homologazioa iraungia duten ibilgailuak onartuko dira.

Antolakuntzak eskubidea du bere proban beste talde eta kategoria batzuk onartzeko, betiere bere araudian adierazten badu ez dutela puntuatzen eta ez dutela punturik blokeatzen Txapelketarako. A taldeari dagozkion segurtasun neurriak bete beharko dituzte ibilgailu hauek, indarrean dagoen CDIko J Eranskinaren arabera.

4. Artikulua- INSKRIPZIOKO ESKUBIDEAK ETA SARIAK

4.1. Inskripzioko eskubideak: Inskripzioko eskubideei dagokionean gehieneko bat ezarriko da, Organizazioak kontratatutako publizitatea onartzuz, zein **120 €**-koa izango baita.

- 4.2.** Eskubideek nahitaezko aseguru eta erantzukizun zibila dituzte barne.
- 4.3.** Inskripzioko eskubideak bere osotasunean itzuliko dira ondorengo kasuetan:
 - a.) Taldeei zeinen inskripzioak ez baitira onartuak izan.
 - b.) Proba ospatuko ez balitz.
- 4.4.** Antolatzaileak eskubideen % 100a itzuliko ahal izango diete borondatez kanpoko arrazoiengatik, behar bezala egiaztatuta, Rally-ko irteerara bertaratu ezin izango liaketen lehiakideei.
- 4.5.** Proban inskribatutako partaide bat bertaratzen ez bada, kirol-komisarioen irizpideari jarraiki zigortuko zaio, borondatez kanpoko justifikatutako arrazoiak nahiz 24 ordu lehenago idatzizko oharraren bidez jakinarazpena aurkeztu ezean.
- 4.6.** Inskripzio-eskaerak Organizazioak eduki beharko ditu, behar bezala beteta eta eskubideak ORDAINDUTA. Hala ez balitz, ez da inskribatutakoen zerrendan azalduko.
- 4.7.** Pilotua nahiz lehiakidearen betebeharra izango da inskripzioen amaiera-datan Organizazioari helaraztea, FAX, e-mail bidez ala pertsonalki, behar bezala betetako eta sinatutako Inskripzio-eskaera, hala nola dokumentuen kopia eta inskripzio-eskubideen ordain-agiria.
- 4.8.** Inskripzio-eskaera ez da onartua izango inskripzio-eskubide guztiekin lagunduta ez badao.
- 4.9.** Sailkatzen diren denen artean 6.000 euro banatuko dira proportzionalki, NHak barne, baldin eta probaren araudiak onartzen baditu.
- 4.10. Txapelketako amaierako sariak**

Amaierako sari hautara sarbidea izateko, gutxienez puntuagarriak diren probetako % 60an atera beharko da. Hamartarrak gorantz biribilduko dira.

5. Artikulua- PROBETAKO ARAUDIA

5.1 – Ibilbidea

5.1.1. Noranzko bakarrean ibiltzeko kronometratutako tarte bakarra baimentzen da.

5.1.2. Itzuliei dagokion gehieneko kopurua 3koa izango da, noranzko bakarrean.

6.Artikulua. AZTERKETAK

6.1. Orokortasunak

- 6.1.1.** Antolakuntzak ezarritako egunetan soilik aztertu ahal izango dute taldeek ibilbide kronometratua, eta antolakuntzak eskubidea izango du ezartzeko tarte bakoitzetik pasatzeko gehieneko kopuru bat. Ordutegia eta tarte bakoitzetik pasatzeko baimenduriko kopurua **probaren araudian** argitaratuko dira.

6.1.2. Automobil "erbiak" debekatuta daude, proban inskribatutako beste lehiakide baten automobila bada ere.

6.1.3. Ibilbidea aztertzean, taldeek zorrotz bete beharko dituzte indarrean dauden trafiko arauak.

Era berean, gehienezko abiadura 80 km/h izango da, agintariak gehienezko abiadura txikiagoa ezarri duten guneeetan izan ezik.

Antolakuntzak gehienezko abiadura muga hori murriztu ahal izango du ibilbide guztian edo tarte batean, baina adierazi egin beharko du muga hori zein den. Abiaduran, egoeran, probaren araudian edo osagarrietan.

6.1.4. Antolatzaileari talde partaide bakoitzari aztergai den ibilgailuan jartzeko eranskailu bat ematea gomendatzen zaio.

6.2. Azterketako ibilgailuen muga

6.2.1. Erabat debekatuta dago azterketak lehiaketako ibilgailuarekin burutzea.

6.2.2. Ibilgailu aztergaiak hertsiki seriekoak izan beharko dute.

6.2.3. Ibilgailuak ezingo du publizitaterik nahiz eranskailurik eraman.

6.2.4. Pneumatikoek hertsiki seriekoak izan behar dute, lehiaketako pneumatikoak erabat debekatuta daudelarik.

6.2.5. Ihes-hodiko isilgailua erabilera nahiz funtzionamenduari dagokionean behar bezala egongo da.

6.2.6. Debekatuta dago ibilgailu aztergaietan irrati-instalazioak nahiz antenak eramatea.

6.2.7. Antolatzaileak eskuratuko balu, ibilgailu aztergaiak aurreko kristalaren eskuineko goialdean azterketa-eranskailu bat jarrita eramango dute.

6.3. Kontrola eta zigorrak

6.3.1. Organizazioak Epailak izendatu ahal izango ditu kontrolak burutzeko, probaren araudi berezian agertzen direnez gainera, eta Gobernuak nahiz Bertako Agintariak 6. artikulua osoa kontrolatzeko burutu ahal dituztenez gainera, azterketekin lotutako araudia betetzeko helburuarekin, edozein kasutan indarrean dauden Trafikoko Arauak hertsiki bete behar dira.

6.3.2. Lehen aipatutako epailetak edozeinek burututako edonolako salaketak, ondorengo zigorra izango du barne:

1. arau-haustea: 3 min. eta 60 Euro.

2. arau-haustea: 5 min. eta 100 Euro.

3. arau-haustea: GAFren Diziiplina Araudian arau urratze oso larria.

Zigor hau Lehiaketa osoan zehar metagarria izango da eta Kirol-Komisarioek bere lehenengo bileran adieraziko dute, probarekin hasi aurretik.

Hurrengo arau-hausteak ondorengo baremoaren arabera zigortuko dira:

Aurreko arau-haustearen bikoitza.

6.3.3. Zigortutako taldeak erabaki hau apelatu nahiko balu, horrek ez du zigorraren kautelazko bertan behera uztea suposatuko.

6. Artikulua. EGIAZTAPENAK

- 7.1.** Bai Administrazio-Egiaztapenerako eta bai Teknikoetarako ordutegi-kontrol bat aplikatuko da proba bakoitzaren araudi berezian aurkeztutako taulari jarraiki, inskribatuen zerrendaren argitalpena burutzen denean.
- 7.2.** Ordutegi horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira, partaideren batek beteko ez balu arau-hausleari 60 Euroko zigor ekonomiko bat ezarriko zaio.
- 7.3.** Administrazio-egiaztapenei dagokionean nahitaezkoa izango da ondorengoak aurkeztea:
 - a) I.A.T. dokumentazioa.**
 - b) Ibilgailuaren aseguruia.**
 - c) Lehiakidearen baimena.**
 - d) Partaideen baimenak.**
 - e) Gidariaren gidabaimena.**
- 7.4.** Irteera baino lehen burututako egiaztapenak erabat izaera orokorrekoak izango dira.
- 7.5.** Taldeak, egiaztapen teknikoei dagokionean, ibilgailuaren homologazio-fitxa aurkeztu beharko du.
- 7.6.** Kirol-Komisarioek hauetarako aurreikusitako ordutegitik kanpo egiaztapen bat baimendu izango balute (borondatez kanpoko arrazoiengatik, lehiakidearen aldetik behar bezala justifikatuta), talde arau-hauslea zigortu ahal izango da.
- 7.4.** Irteera baino lehen burututako egiaztapenak erabat izaera orokorrekoak izango dira.
- 7.5.** Taldeak, egiaztapen teknikoei dagokionean, homologazio-fitxa aurkeztu beharko du.
- 7.7.** Kirol-Komisarioek hauetarako aurreikusitako ordutegitik kanpo egiaztapen bat baimendu izango balute (borondatez kanpoko arrazoiengatik, lehiakidearen aldetik behar bezala justifikatuta), talde arau-hauslea zigortu ahal izango da.

8. Artikulua. PARKE ITXIA

- 8.1.** Parke itxia nahitaezkoa izango da egiaztapen teknikoak aurreikusita dituzten lehiaketa guztietan. Probari dagokion Araudi Bereziak Parke Itxia zein tokitan instalatuko den zehaztuko du.
- 8.2.** Parke Itxiaren erregimenean zehar debekatuta dago edonolako konponketa nahiz birgaitze burutzea.
- 8.3.** Probaren amaierara iristen direnetik amaierako sailkapena argitaratu ondoren 30 minutu pasa arte, ibilgailuak parke itxian egongo dira.
- 8.4.** Probatik irteterakoan irteerako Parke Itxi bat aurreikusi ahal izango da zeinetan ibilgailuek egon beharko baitute, gutxienez irteera baino 60 minutu lehenago.

- 8.5.** Bere ibilgailua Parke Itxian aparkatu ondoren, taldeak nahitaez motorra itzali eta Parke Itxi hori berehala utzi beharko du, une horretatik aurrera, taldeak debekatuta dauka bertara sartzea.

9. Artikulua. IBILBIDE-GIDABAIMENA

- 9.1.** Talde bakoitzari Ibilbide-Baimen bat emango zaio zeinetan Tarteari dagozkion ibilbidearen denbora ezberdinak eta irteera idatziko baitira, hala nola Parke Itxira iristen den amaierako ordua. Rallysprint-eko azkeneko iriste-denbora hau nahitaezko betebeharra izanik.

10. Artikulua. LAGUNTZA-GUNEA

- 10.1.** Proba guztian zehar, laguntza organizazioak esleitutako tokitan soilik burutu ahal izango da, zein proba bakoitzeko araudi berezian argitaratuta azalduko baita.
- 10.2.** Erabat debekatuta dago ibilgailu partaide bati laguntza ematea, antolatzaileak esleitutakoa ez den beste edozein tokitan.
- 10.3.** Araudi hau betetzen ez bada zigorra ezarriko da, probako kirol-komisarioen irizpideari jarraiki.

11. Artikulua. PUNTUEN ESLEIPENA.

- 11.1.** Proba puntuagarri bakoitzean ondorengo sailkapenak ezarriko dira:
- Scratch Sailkapen Nagusia, onartutako ibilgailu guztientzat.
 - Sailkapen Nagusi bat, Maila bakoitzarentzat.
 - Sailkapen Nagusi bat, Kopilotuentzat.
 - Sailkapen Nagusi bat, Junior mailako Sarirako.

11.2. Puntuen esleipena.

Rallysprint-eko Gipuzkoako Txapelketa hautatzen ez duten partaideek ez dutela puntuatzen eta puntuaketarik ez dutela blokeatzen, jarraian adierazten den bezala esleituko dira:

- 11.2.1.** Rallysprint-eko Gidarien Gipuzkoako Txapelketarako:

Scratch Sailkapen Nagusia:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º	7º	8º	9º	10º
Puntuak	20	15	12	10	8	6	4	3	2	1

Mailen araberako sailkapena:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º
Puntuak	12	10	8	6	4	2

Scratch Sailkapenean lortutako postuaren arabera lortutako puntuak erantsi beharko dira gehi mailari dagozkionak.

11.2.2.Kopilotuen Gipuzkoako Sarirako, Gidarien Gipuzkoako Txapelketan erabilitako irizpide berdina aplikatuko da.

11.2.3.Gidarien Junior mailako eta Emakume Gidariak Gipuzkoako Sarirako, Sari honetako partaideek soilik eraturako sailkapena burututakoan, puntuak jarraian adierazten den bezala esleituko dira:

Scratch Sailkapen Nagusia:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º	7º	8º	9º	10º
Puntuak	20	15	12	10	8	6	4	3	2	1

11.2.4.Kopilotuen Junior mailako eta Emakume Kopilotuen Gipuzkoako Sarirako, Sari honetako partaideek soilik eraturako sailkapena burututakoan, puntuak jarraian adierazten den bezala esleituko dira:

Scratch Sailkapen Nagusia:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º	7º	8º	9º	10º
Puntuak	20	15	12	10	8	6	4	3	2	1

11.3. Proba bateko berdinketak.

Lasterketan berdinketa gertatzen bada, hauen puntuak eta sariak batuko dira, eta denbora berdina lortu dutenen artean atal berdinetan zatituko dira.

12. Artikulua. SARIAK ETA TXAPELAK

12.1. Kirolzalea sari eta txapel banaketan bertan egotea nahitaezkoa da, bertaratzen ez bada, horrek dagokion saria galtzeko bidea emango du.

13. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIAK

13.1. Rallysprint-eko Gipuzkoako Txapelketarako proba puntuagarriak ondorengoak izango dira:

15 Otsaila	Gabiriako Rallysprint
14 Martxoa	Azpeitiako Rallysprint
25 Apirila	Ñañarriko Rallysprint
9 Maiatza	Azkoitiko Rallysprint
12 Iraila	Hondarribiko Rallysprint
	Orioko Rallysprint
	Irungo Rallysprint
	Lesakako Rallysprint

13. Artikulua- ATXIKI BEHARREKO EMAITZAK

Gidarien Gipuzkoako Txapelketarako eta Kopilotuen, Junior mailako Gidarien eta Junior mailako Kopilotuen Mailen araberako Euskal Sariantzako atxiki beharreko emaitza-kopurua, lehiatutako proba guztiak ken bat izango da.

Txapelketaren amaieran berdinketa gertatzen bada, hau 2009 Gipuzkoako Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge-etako Agindu Komunei dagokion 16. artikuluari jarraiki erabakiko da. Proba batean kanporatze bat ezin ahal izango da emaitza bezala deskontatu.